



**EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAMENDU ETA
FUNTZIONAMENDUAREN LEGE-PROIEKTUAREN MEMORIA EKONOMIKOA**

**a) AURREKARIEN AZALPEN A ETA XEDAPENAREN BEHARRIZANAREN
JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA**

a1) Proposatutako araua emateko oinarri juridikoen adierazpena

Lege berria bat dator Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. paragrafoetan jasotzen diren eskumen eskusiboekin, bai Euskal Autonomia Erkidegoaren autogobernu-erakundearen antolamenduari, araubideari eta jarduerari buruzkoekin, bai zuzenbide substantiboaren espezialitateetatik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren berezko antolamendutik eratortzen diren administrazio-prozeduraren arauari buruzkoekin, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren beraren sektore publikoari buruzkoekin ere, betiere Estatutuko beste arau batzuek eragiten ez dioten neurrian. Alde horretatik, adierazi behar da Estatutuko legegileak ez duela eredu espezifikorik ezarri *Espainiako Konstituzioaren* (EK) 149.1.18 artikuluko herri-administrazioen araubide juridikoen oinarriak ezartzeko ematen dion eskuduntza baliatuta.

Gaur egun, xedapen hauek arautzen dute, funtsean, EAEko sektore publikoa: *1/1997 Legegintza Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duena; 14/1994 Legea, ekainaren 30ekoa, Euskal Autonomi Elkarteko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzkoa; 1/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, Herri-kontuen Euskal Epaitegiarena; 2/2007 Legegintza Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzekoa; eta 6/1989 Legea, uztailaren 6koa, Euskal Funtzio Publikoarena.*

Bestalde, **administrazio-jardueraren alorrean**, Espainiako Konstituzioaren 149.1.18. artikuluko eskuduntza eskusiboa ematen dio Estatuari administrazio-prozedura erkidearen gai-alorra arautzeko, baina autonomia-erkidegoen berezko antolaketak eratortzen dituen berezitasunei kalterik egin gabe. Azken nabardura horren ondorioz, EAEk eskumena du gai-alor horretan eman den oinarritzko legediaren (30/1992 Legea) arau-garapena egiteko.

Hala ere, EAEk du eskuduntza eskusiboa Euskal Autonomia Erkidegoaren antolamendu propiotik eta hark emandako zuzenbide substantibotik eratortzen diren prozesu-arauak, administrazio-prozedurakoak eta arau ekonomiko-administratiboak emateko, hori agintzen baitu EHAren 10.6. artikulua.

Oinarri juridiko horiek berak daude indarrean **administrazio elektronikoaren** eskuduntza nori dagokion zehazteko, baina adierazi behar da Estatuak Espainiako Konstituzioaren 149.1.18. artikulua ematen dion eskuduntza eskusiboa baliatuta, *ekainaren 22ko 7/2007 Legea eman zuela, herritarrek zerbitzu publikoetara sarbide elektronikoa izateari buruzkoa*, oinarritzko izaera duena, eta Euskal Autonomia Erkidegoan *otsailaren 21eko 21/2012 Dekretua eman dela, Administrazio Elektronikoari buruzkoa*.

- a2) Proposatutako arauaren eta aurrekarien ildo orokorren berri emateko datuen, txostenen eta azterlanen adierazpena

2014ko irailaren 16an Jaurlaritzaren Kontseiluak Euskal Administrazio Publikoaren lege-proiektua onartu zuen eta Eusko Legebiltzarrera igorri zuen gero. Apirilaren 23an, Eusko Jaurlaritzak Lege-proiektua erretiratzea erabaki zuen, Eusko Legebiltzarrean testua aurrera atera ahal izateko oposizioarekin behar zen adostasuna lortzeko aukerarik ez zegoela ikusita, baina aldi berean konpromisoa hartu zuen Eusko Legebiltzarrera beste bi proiektu bidaltzeko, Euskal Administrazio Publikoaren Lege Proiektutik abiatuta eta Legebiltzarreko Talde Politiko guztiek aurkeztutako zuzenketak kontuan hartuta landutakoak.

Horrela bada, bi proiektu berri horiek dira:

- Lehenik, Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Lege Proiektua. Euskal Sektore Publikoaren sailkapena, osaera eta antolamendua barne hartzen ditu proiektuak: sektorearen egitura, funtzionamendua eta betebeharrak arautzea, entitate bakoitzaren eskumenak zehazitzea, administrazioen artean kolaboratu eta koordinatu beharra, eta kontroleko eta erregistroko prozedurak. Era berean, funtzionamenduko elementu batzuk ere sartzen ditu, hala nola administrazio elektronikoa edo kudeaketa aurreratuko sistemak.

- Bigarrenik, Euskal Sektore Publikoaren Gardentasunaren eta Gobernu Onaren Lege Proiektua. Gobernu onaren printzipioak arautzen ditu: politika publikoen plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa, gardentasuna, publizitate aktiboa eta informazio publikoaren eskuragarritasuna eta herritarren parte-hartzea garantizatzea.

Horrez gainera, Jaurlaritzaren Kontseiluak, 2013ko uztailaren 30ean egin zuen bilkuran, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Berrantolatzeko Estrategia onartu zuen, eta, estrategia hori egiteko, gerora lege-aurreproiektu honetara ekarri diren printzipioak, irizpideak eta metodologia-planteamenduak baliatu ziren.

Agiri estrategiko horrek Berehalako Ekintza Plan bat egiteko irizpideak zehaztu zituen, antolamendua eta funtzionamendua arrazionalizatzeko alderdiak aurrezkiaren eta gastuaren kontrolaren finantza-alderdiekin uztartuz. Berehalako Ekintza Planak 235.297.715 euroko murrizketa aurreikusten zuen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen funtzionamendugastuetan.

a3) Beharrianaren justifikazio ekonomikoa

Duela ia hogeita hamar urte ezarri ziren euskal Administrazio Publikoaren hasierako oinarriak, Jaurlaritzaren Legearen bidez eta euskal Sektore Publikoaren definizioa emanez, Euskadiko Ogasun Nagusiko Antolarauei buruzko lehen Legean.

Ordutik hona, aldaketa ugari egon dira gizartean, legedian, antolamenduan eta teknologietan, eta atzeraezina da araudia eguneratzea, antolamendu hori diziplinatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko funtzionamendua berritzeko, gaur egun nahiko sakabanatua baitago gure Administrazioaren araubide juridikoa.

Gainera, administrazioaren antolamendua harreman estuan dago bere funtzionamendu-arauekin, eta Administrazioak eboluzionatu beharra dauka gobernu-mota eraginkorrago eta efizienteago baterantz, gobernantza onaren paradigma berrien gainean oinarriturik.

Ez da ahaztu behar, era berean, ekimenaren beste arrazoietakoa bat baliabide publikoak modu efizientean arrazionalizatzeko beharrezana dela; izan ere, diru-sarrerara publikoak behera egiten ari diren garaian, estaldura publiko ahalik eta handiena eman nahi da, eskura dauden baliabideekin. Asmo hauek dira lortu nahi diren helburu horien adierazle:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa berrantolatzea eta arrazionalizatzea, erakunde-multzo konplexua baita, hainbat izaera juridiko dituena eta zuzenbide publikoaren edo pribatuaren mende egon daitekeena, eta bere izatea justifikatzen duena interes orokorreari erantzunez, funtzio publikoak betetz eta haren jarduna efikaziaren eta efizientiaren printzipioen arabera gauzatuz.
- Euskal Sektore Publikoaren funtzionamendua hobetzea, herritarrengana bideratzea eta balio publikoa sortzea, efikazia eta efizientzia hobetzeko behar diren tresna eta bitartekoak baliatuz: administrazio elektronikoa, kudeaketa publiko aurreratuko sistemak eta herritarrekiko interakzio-sistema kanal anitzekoa.
- Jarduera ekonomikoa bultzatzea, jakinda administrazio publikoaren jardun-moduak eragina duela jarduera ekonomiko-pribatuaren nolakotasunean.

a4) Beste arau-ekimen batzuen gaineko eragin ekonomikoa

Izapidetzen den arauak ez du eragin ekonomikorik beste arau-ekimen batzuetan.

a5) Arauen arteko aldeen analisia, hala balegokio

Eragin ekonomiko hauek ditu arau-ekimenak:

- Lege-proiektu honen aitzinamendu moduan, gobernu honek “Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoa Arrazionalizatzeko eta Berrantolatzearen Estrategia” bultzatu du, gerora lege-aurreproiektu honetara ekarri diren printzipioak, irizpideak eta metodologia-planteamenduak baliatuta. Horri esker, 235.297.715 euro aurreztu dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateen funtzionamendu-gastuetan.

- Esan daiteke **aurrezteko neurri bat ezartzen duela arauak antolamendu-egitura autonomoak sortzeko muga bat ezartzen duenean**; izan ere, aurrez daudenek funtzio publikoak efikaziaz eta efizientziaz bete ezin dituztenean soilik sor daitezke haiek. Horretarako, bideragarritasun ekonomikoa aztertu behar da eta legebiltzarrak hari dagokion legea onartu behar du, administrazio orokorraren kontrol-mekanismoak erabilita. Proporzionaltasuna zaindu behar da partaidetza ekonomikoaren eta erabakitze-organoetako partaidetzaren artean, ahalegina egin behar da haren jardunean bikoiztasunik, errepikapenik eta inefizientziarik izan ez dadin, eta haren efizientziaren eta efikaziaren urteroko ebaluazioak egiteko betebeharra ezarri behar da, berregituratze-neurriak har daitezen, beharrezkoa baldin bada.
- Ikus daiteke, era berean, V. tituluan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren funtzionamendua herritarren zerbitzuan arautzekoan, jasotzen diren xedapenen helburua dela zerbitzuak hobetzea **kudeaketaren erantzukizunaren printzipioa erantsiz, horrek aurrezpena ekarriko duelako inefizientziak ezabatuta eta helburuen lorpen-ratioak handituko dituelako. Horrenbestez, egungo egitura-kostuak finantzatzeko aurrekontu-baliabideen aprobetxamendua eta efizientzia areagotuko da.**
- Administrazioaren funtzionamendua hobetzeko gehituko diren tresnak orain dauden giza baliabideekin eta aurrekontu-dotazioekin gauzatu ahal izango dira.
 - **Kudeaketa publiko aurreratuko sistemak** ezartzeko ereduak garatu behar dira, langileei prestakuntza eman behar zaie, kudeaketaren auditoriak edo ebaluazioak egin behar dira, eta beste hainbat jardura egin beharko dira. Horiek guztiak egiteko, dotazio egokiak esleitu beharko zaizkie administrazioaren berrikuntzaz eta hobekuntzaz arduratzen diren unitateei. Gaur egun, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak badu aurrekontu-partida bat esleitura kontzeptu horretarako:

						EURO / EUROS	
SEK.	APROG.	ZEN.	AKON.	PART.		PARTIDAK	GUZTIZKOAK
SEC.	SPROG.	CEN.	SCON.	PART.		PARTIDAK	TOTALES
15	02	1215	33	23899	009	Kudeaketaren hobekuntza - Aurrerabide. Konpromiso kreditua: 2016. 0,05 M; 2017: 0,08 M; Guztira: 0,12 M. Mejora de la gestión - Aurrerabide. Crédito de compromiso: 2016. 0,05 M; 2017: 0,08 M; Total: 0,12 M.	51.600

- **Administrazioa sinplifikatu eta prozedurak digitalizatzeko neurriak** beteko badira, inbertsio handiak egin behar dira baliabide propioetan eta kanpo-baliabideetan, baina aurreikusten da hemendik aurrera inbertsio hori txikituz joango dela, azpiegitura komunak oso aurreratuta daudelako. Are gehiago, oso aurrezki handiak lortuko dira izapidetze elektronikoa orokortzen denean. Aurrezteak lortuko dute bai administrazioak (ez du papera erabiltzeko beharrik izango, lanak automatizatu egingo dira, laburtu egingo dira kudeaketa-denborak, elkarreragingarritasuna baliatuko da...) bai herritar eta enpresek, joan-etorri gutxiago egin behar izango dituztelako, agiri gutxiago beharko dituztelako, eta denbora gutxiago eman beharko dutelako herritarren arretarako eta erregistroetako leihatiletan. Administrazio elektronikoa bultzatzeko, antolamenduaren, teknologiaren eta prozeduren alorretako lan-ildoak kudeatzeko gai diren giza baliabideak erabili behar izan dira proiektuan, hau da, proiektu-arduradunak sartu behar izan dira proiektuan. Alabaina, Eusko Jaurlaritzak erabiltzen dituen prozeduren bolumen izugarri handia digitalizatzeko, ezinbestekoa da zerbitzu elektronikoen unitate bat sortzea, bitarteko elektronikoen bidez kudeatzen diren jaurlaritzako zerbitzu guztiak behar bezala funtzionatuko dutela bermatzeko (erabiltzaileen altak, tresnen konfigurazioa, etab.). Unitate horretarako, 5 lanpostu-hornidura kalkulatu dira, lanbide-profil teknikoak dutenak. Neurri batean, Herri Administrazio eta Justizia Saileko giza baliabideen barneko berrantolaketa eginez bultzatu daiteke unitate horren sorrera. Era berean, premiazkoa da erabiltzaileentzako arreta-zentroak berrantolatzea, zerbitzu elektronikoen EAZ bakarra izan dadin herritarrentzat (kanpoko erabiltzaileak) eta izapidetzaileentzat (barneko erabiltzaileak). Era berean, administrazio elektronikoko proiektu honen arduradunak, pixkanaka, orain arte osorik garatu ez diren egitekoak betetzeari ekingo diote, lotura estua duten aldetik Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legean agintzen direnekin: kudeaketa publiko aurreratua edo herritarrekin interakzioan jarduteko kanal anitzeko sistema. Hemen adierazi berri diren jarduerak egiteko, esleituta dago, dagoeneko, aurrekontu-partida bat, 3.708.579 eurokoa, "Administrazio elektronikoa" epigrafean, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzan. Zerbitzu elektronikoen EAZak berrantolatzearen kostua izango litzateke, orain sailek urtero finantzatzen duten zenbatekoa, 585.000 euro, eta beste 315.000 euro gehiago, zerbitzu elektronikoen erabilera handitzearen ondorioz (gaur egun %65koa da eta %100koa izango da). Zerbitzu elektronikoen erabiltzaileen arretarako zerbitzu (EAZ) bateratua sortzeko 819.000 euro beharko dira guztira.

							EURO / EUROS	
SEK.	APROG.	ZEN.	AKON.	PART.			PARTIDAK	GUZTIZKOAK
SEC.	SPROG.	CEN.	SCON.	PART.			PARTIDAS	TOTALES
15	02	1215	33	23899	001	Administrazio elektronikoa. Konpromiso kreditua: 2016. 5,01 M; Guztira: 5,01 M. Administración Electrónica. Crédito de compromiso: 2016. 5,01 M; Total: 5,01 M.	3.708.579	

Zerbitzu elektronikoen EAZ:

	2015	2016	2017	2018
Sailek jada finantzatzen duten EAZ	585.000	585.000	585.000	585.000
Behar den finantzaketa gehigarria, guztira		135.000	225.000	315.000
Behar den finantzaketa, guztira	585.000	720.000	810.000	900.000
Zerbitzu elektronikoen eskuragarritasunaren bilakaera.	%65	%80	%90	%100

- **Administrazio Elektronikoen Aholku Batzordearen** sorrerak oso gastu txikia eragingo du, administrazio publikoen ordezkariak osatuko baitute, dietak ordaintzeko premiarik gabe.
- **Herritarrekin interakzioan jarduteko kanal anitzeko sistema** eraikitze bidean da eta dotazio ekonomikoa beharko du martxan jartzeko. Antolamenduaren aldetik ere neurriak beharko ditu herritarrekin interakzio eraginkorra bermatzeko. Gaur egun, Lehendakariatzako Irekia zerbitzuak, web zerbitzuak eta Herri Administrazio eta Justizia Saileko Zuzenean zerbitzuek ematen dituzte zerbitzu horiek. Egin beharreko jarduerak jada badituzte aurrekontu-partidak esleituta: Irekia zerbitzuak 1.192.658 euroko aurrekontua du, eta herritarrekiko interakzioak (web zerbitzua eta Zuzenean) 2.457.986 eurokoa.

SEK.	APROG.	ZER.	KAPITULUAK				PARTIDAK	GUZTIZKOAK
SEC.	SPROG.	SER.					PARTIDAS	TOTALES
15	01	1121	15	Gobernu Irekiaren Zuzendaritza Dirección de Gobierno Abierto				1.192.658

SEK.	APROG.	ZEN.	AKON.	PART.		PARTIDAK	GUZTIZKOAK
SEC.	SPROG.	CEN.	SCON.	PART.		PARTIDAS	TOTALES
15	02	1215	33	23880	001	Herritarrekiko elkarrekintza Konpromiso kreditua: 2016. 2,39 M; Guztira: 2,39 M. <i>Interacción con la ciudadanía Crédito de compromiso: 2016. 2,39 M; Total: 2,39 M.</i>	2.457.986

- **Gobernu irekiko plataforma**, herritarrekiko interakziorako kanal anitzeko sistema gisa, Irekia plataformaren bidez gauzatzen da gaur egun, eta, lehen adierazi den moduan, aurrekontu-partida bat du esleituta. Dena dela, aurrekontu-dotazio horiek unean-unean handiagoak edo txikiagoak izan daitezke, plataformaren mantentze-lanen eta bilakaeraren arabera.
- Gaur egun, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak bere gain hartuak ditu lege-aurreproiektuak jasotzen dituen elementu gehienak, zuzendaritza horrek esleituta dituen aurrekontuetan eta egituretan oinarrituta; alabaina, lehen adierazi den moduan, **zerbitzu elektronikoen unitatea** sortu beharko da.

b) LEGE-PROIEKTUA INDARREAN SARTZEAK ERAGINGO DITUEN AURREKONTU-GASTUEN ETA DIRU-SARREREN KUANTIFIKAZIOA

Finean, azaldu den guztiari erreparatuta eta ondorio moduan, esan daiteke Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren lege-aurreproiektuak lege-oinarriak ezartzen dituela efikazia- eta efizientzia-neurri berritzaileak sustatzeko administrazioan eta euskal sektore publikoan. Kudeaketa publiko aurreratuko sistemak, administrazio elektronikoa eta herritarrak artatzeko sistema ezartzeko behar diren irizpide argiak finkatzen ditu, aspalditik baitzegoen premia lege-aurreproiektu honek proposatzen duena bezalako lege-esparru bat finkatzeko. Funtsean, efikazia eta efizientzia bultzatzen duen lege bat da, eta aurrekontu-zenbatekoak murriztearen alde egiten du. Horren erakusgarri da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa arrazionalizatzeko eta berrantolatzeke Estrategia, Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuena 2013ko uztailaren 30ean egin zuen bilkuran. Estrategia horrek jasoak ditu lege-aurreproiektu honek araututako printzipioak. Horren ondorioz, 235.297.715 euroko aurrekontu-murrizketa izan da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundearen funtzionamendugastuetan. Horrenbestez, logikoa da pentsatzea, horrelako neurriak bultzatuta, aurrekontu-murrizketen bidea urratzen jarraituko dela. Bestalde, aurreko puntuetan azaldu dugun moduan, inbertsio berri batzuk egin behar dira lege-aurreproiektuak arautzen dituen jarduerak bultzatzeko; hala nola, Gardena - Gardentasunaren Euskal Agentzia sortzeko egin behar dena. Inbertsio horiek,

hala ere, nabarmen konpentsatuko dira lege-aurreproiektu hau betetzean lortuko diren aurrekontu-murrizketekin.

Legea indarrean jartzeak ekarriko duen aurrekontu-murrizketa / aurrezpena

Berregituratzeko Estrategia abian jarri ondoren lortu den aurrekontu-murrizketa	-235.297.715
---	--------------

Ezarriak dauden eta legea indarrean jartzean egin beharrekoak diren jardueretara bideratutako aurrekontu-partidak, 2015eko ekitaldirako, 02 sekzioan, 1215 programan, 33 zerbitzuan eta 01 sekzioan, 1121 programan, 15 zerbitzuan

Kudeaketaren hobekuntza - Aurrerabide. Konpromiso kreditua: 2016. 0,05 M; 2017: 0,08 M; Guztira: 0,12 M. <i>Mejora de la gestión - Aurrerabide. Crédito de compromiso: 2016. 0,05 M; 2017: 0,08 M; Total: 0,12 M.</i>	51.600
Administrazio elektronikoa. Konpromiso kreditua: 2016. 5,01 M; Guztira: 5,01 M. <i>Administración Electrónica. Crédito de compromiso: 2016. 5,01 M; Total: 5,01 M.</i>	3.708.579
Herritarrekiko elkarrekintza Konpromiso kreditua: 2016. 2,39 M; Guztira: 2,39 M. <i>Interacción con la ciudadanía Crédito de compromiso: 2016. 2,39 M; Total: 2,39 M.</i>	2.457.986
Gobernu Irekirako Zuzendaritza <i>Dirección de Gobierno Abierto</i>	1.192.658
	7.410.823

EAZ zerbitzu elektronikoak, 2015eko aurrekontuetan finantzatuak aurrekontuko beste sekzio (sail) batzuetan

EAZ - Zerbitzu elektronikoak Gaur egun beste sail batzuek finantzatua	585.000
	585.000

Legea indarrean jartzean ezarri beharko diren aurrekontu-partida berriak

12150 programa - Zerbitzu elektronikoen EAZ	315.000
---	---------

Memoria honen I. eranskinean zenbait helburu, ekintza eta adierazle jasotzen dira, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren 2015eko memoriari dagozkionak, eta bertan ikusten da, neurri handi batean, zer jarduera-bolumen eta zer izaeratako helburuak lor daitezkeen egun dauden aurrekontu-hornidurekin eta egungo plantillarekin.

c) AURREKONTUKO GASTUEN FINANTZAKETA ETA AURREKONTUTIK EZ DATOZEN GASTUEN FINANTZAKETA

- c1) Ukitzen diren ordaintzeko aurrekontu-kredituak eta horien programa, azpi-programa, kapitulu, artikulua eta kontzeptuen zehaztapena
- c2) Ukitzen diren konpromisoetako aurrekontu-kredituak eta horien programa, azpi-programa, kapitulu, artikulua eta kontzeptuen zehaztapena
- c3) Aurrekontuetatik kanpoko finantzaketa-iturriak

- d) **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO OGASUN NAGUSIAREN GAIETAN ERAGITEN DUTEN XEDAPEN-ALDERDIAK ZEHAZTEA**
 - d1) Ondarearen eta kontratazioaren araubidean
 - d2) Diruzaintzaren, zorpetzearen edo bermeak ematearen araubidean
 - d3) Aurrekontuak egin eta kudeatzean
 - d4) Indarrean dagoen kontrol- eta kontabilitate-sisteman
 - d5) Zerga-sisteman eta aplikatzekoa den zuzenbide publikoko edo pribatuko gainerako diru-sarreretan
 - d6) Indarrean dagoen diru-laguntzen eta laguntzen araubidean

 - Arauak ez du aurrez adierazitako ataletan eragiten

 - d7) Izaera ekonomikoa duten eskubide eta betebeharrekin lotuta dauden beste araubide batzuetan

Ez du eraginik bestelako araubideetan

**e) PROPOSATUTAKO XEDAPENARI DAGOKION AURREKONTU- ETA
EKONOMIA-PROGRAMAREN DESKRIBAPENA**

- e1) Araua justifikatzen duen aurrekontu-memoriaren eta hari dagokion aurrekontu-programaren deskribapen laburra
- e2) Araua indarrean sartzeak ukituko dituen helburuak, ekintzak eta adierazleak eta haietan izango diren aldaketak

Aurrekontu-programa hauek ukituko ditu:

1215 Berrikuntza eta Administrazio Elektronikoa

1121 Lehendakaritzako egitura eta laguntza

Vitoria-Gasteizen, 2015eko ekainean

Sin.: Javier Bikandi Irazabal

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaria

I. ERANSKINA

PROGRAMA	PROGRAMA
1215 BERRIKUNTZA ETA ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOA	1215 INNOVACIÓN Y ADMINISTRACIÓN ELECTRÓNICA
ARDURADUNA	RESPONSABLE
<u>02 HERRI-ADMINISTRAZIOA ETA JUSTIZIA</u>	<u>02 ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y JUSTICIA</u>
FUNTZIO PUBLIKOKO SAILBURUORDEA	VICECONSEJERO DE FUNCIÓN PÚBLICA

MEMORIA

Sailen arteko plan eta proiektuak prestatuz eta koordinatuz, Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak zerbitzu publikoetako berrikuntza eta kalitate-hobekuntza bultzatzen du baita Administrazio elektronikoaren benetako garapen eta ezarpena ere. Gainera, herritarrei zerbitzu publikoetan sartzea bide ematen dieten mekanismo, tresna eta informazio- eta arreta-zerbitzu zentralizatuak kudeatzen ditu.

Herritarrek Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak honako hauek sustatu nahi ditu:

Administrazio irekia: Gardentasuna, parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzea administrazio publikoan.

Administrazio eraginkorra: Hainbat bide erabiliz (aurrez aurrekoa, telefonoa, Internet...) eskura daitezkeen kalitatezko zerbitzuen eskaintza garatzea.

Administrazio efizientea: Administrazio-kudeaketan efizientzia hobetzea; horretarako, erakundea egokitu, prozedurak erraztu eta teknologia eguneratu behar da.

Administrazio berritzailea: Administrazioan berrikuntza sustatzea, herritarrek eta profesional publikoak sartuz politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan.

Laburbilduta, hauek dira jarduketaren ardatzak:

- Gardentasuna eta gobernu ona: Administrazio Publikoaren funtzionamendua araubide demokratiko aurreratura egokitzea.

La Dirección de Atención a la Ciudadanía e Innovación y Mejora de la Administración (DACIMA) impulsa la innovación y la mejora de la calidad de los servicios públicos, así como el efectivo desarrollo e implantación de la Administración electrónica, mediante la elaboración y coordinación de planes y proyectos interdepartamentales. Además, gestiona los mecanismos, instrumentos y servicios de información y atención, de carácter centralizado, que facilitan el acceso de la ciudadanía a los servicios públicos.

La DACIMA tiene entre sus objetivos promover:

- Una Administración abierta: Promover la transparencia, la participación y la colaboración en la Administración pública.
- Una Administración eficaz: Desarrollar una oferta de servicios de calidad y accesible por diferentes canales (presencial, teléfono, Internet).
- Una Administración eficiente: Mejorar la eficiencia en la gestión administrativa, adecuando la organización, implantando nuevos modelos de gestión y realizando un uso inteligente de la tecnología.
- Una Administración innovadora: Promover la innovación en la Administración involucrando a la ciudadanía y a los profesionales públicos en el diseño, la gestión y la evaluación de las políticas y de los servicios públicos.

Los ejes de actuación se resumen en los siguientes:

- Transparencia y buen gobierno: Adecuar el funcionamiento de la Administración Pública a los requisitos de un régimen democrático avanzado.

• Herritarrekin elkarreragina: Herritarrei kalitatezko zerbitzuak eta arreta bermatzea, gaur egun erabilgarri dauden hainbat interakzio-kanalen bidez.

• Antolaketaren egokitzapena: Lanpostuen profilak eta antolaketa-egitura egokitzeko.

• Kudeaketaren hobekuntza: Zerbitzuak eraginkortasunez egin daitezen.

• Administrazio elektronikoa: administrazio elektronikoaren garapena finkatzea,osatzea eta eguneratzea.

• Elkarrekin sortuz berritza: Herritarrek eta profesional publikoek politika eta zerbitzu publikoen diseinuan, kudeaketan eta ebaluazioan parte har dezaten.

• Interacción con la ciudadanía: Garantizar unos servicios y una atención de calidad a la ciudadanía, a través de los diversos canales de interacción disponibles en la actualidad.

• Adecuación organizativa: Para adecuar la estructura organizativa y los perfiles de los puestos de trabajo.

• Mejora de la gestión: Para que la prestación de servicios se realice de forma eficiente.

• Administración electrónica: consolidar, completar y actualizar el desarrollo de la Administración electrónica.

• Innovación desde la co-creación: Para involucrar a la ciudadanía y a los profesionales públicos en el diseño, la gestión y la evaluación de las políticas y de los servicios públicos.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. GARDENTASUNA, PARTE-HARTZEA ETA LANKIDETZA SUSTATZEA ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN. Gardentasuna eta kontuak ematea: • EAEk lider izaten jarraitzea Estatuko gardentasun-rankingetan, eta nazioarteko erreferentzia-ereduetarantz joatea. • Open Datan argitaratzen den dataset-kopurua haztea: Herritarren parte-hartzea: • Parte-hartzearen aldeko formula berriak proposatzen dituzten proiektu pilotuak sustatzea. 2. HAINBAT BIDE ERABILIZ (AURREZ AURREKOA, TELEFONOA, INTERNET...) ESKURA DAITEZKEEN KALITATEZKO ZERBITZUEN ESKAINTZA GARATZEA. Herritarrekin elkarreragina: • Herritarrek Administrazioaren zerbitzuak behar dituztenean, Administrazioaren erantzunari irizten dioten eraginkortasunaren indizea hobetzea. Herritarrek eta enpresek erabil ditzaketen zerbitzu elektronikoaren eskaintza: • Zerbitzu elektronikoaren portzentajea. Zerbitzu elektronikoaren erabilera sustatzea:	1 %10 URTEAN 2 > 8/10 % 85	1. PROMOVER LA TRANSPARENCIA, LA PARTICIPACIÓN Y LA COLABORACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN PÚBLICA. Transparencia y rendición de cuentas: • Mantener el liderazgo de la CAE en los rankings de transparencia del Estado y avanzar hacia los modelos de referencia internacionales. • Incrementar el número de datasets publicados en Open Data: Participación ciudadana: • Apoyo a proyectos piloto novedosos en fórmulas favorecedoras de la participación. 2. DESARROLLAR UNA OFERTA DE SERVICIOS DE CALIDAD Y ACCESIBLE POR DIFERENTES CANALES (PRESENCIAL, TELÉFONO, INTERNET). Interacción con la ciudadanía: • Mejorar el índice de satisfacción de la ciudadanía en su interacción con la Administración. Oferta de servicios electrónicos puestos a disposición de la ciudadanía y de las empresas: • Porcentaje de servicios electrónicos. Promover el uso de los servicios electrónicos:

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
- Herritarren izapide elektronikoen portzentajea. - Enpresen izapide elektronikoen portzentajea. Administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasuna: - Elkarreragingarritasun Sistema Orokorra abian jartzea. 3. ADMINISTRAZIO-KUDEAKETAN EFIZIENTZIA HOBETZEA; HORRETARAKO, ERAKUNDEA EGOKITU, PROZEDURAK ERRAZTU ETA TEKNOLOGIA EGUNERATU BEHAR DA. Antolaketaren egokitzapena: - Berrikusi diren eredu-postuen kopurua, behar berrietara egokitzeko asmoz. - Administrazio elektronikoaren antolaketa-euskarria sortzea. - Espedienteen kudeaketa elektronikoan prestatutako pertsonen kopurua. Kudeaketaren hobekuntza: "Egiten Ikasi" prestakuntza-ekintza ezarritako egutegiaren arabera ematea. - Antolaketa-unitate bakoitzaren diagnosia eta hobekuntza-plana egitea, kudeaketa aurreratuaren eredia aintzat hartuta. Barne-kudeaketa elektronikoa: - Intranet berria ezarrita. - Prozedura digitalizatuen portzentajea. Politika publikoen ebaluazioa: - Ebaluazioak argitaratzeko atari bat garatzea. - Politika publikoak behar bezala ebaluatzea, modu eredugarrian eta antolaketa-kulturan asko eraginez. 4. ADMINISTRAZIOAN BERRIKUNTZA SUSTATZEA, HERRITARRAK ETA PROFESIONAL PUBLIKOAK SARTUZ POLITIKA ETA ZERBITZU PUBLIKOEN DISEINUAN, KUDEAKETAN ETA EBALUAZIOAN. Profesionalengandik berritzea:	% 15 % 60 1 12 1 1.400 1 1 1 % 35 1 1	- Porcentaje de trámites electrónicos de la ciudadanía. - Porcentaje de trámites electrónicos de las empresas. Interoperabilidad entre las administraciones públicas: - Poner en marcha el Sistema General de Interoperabilidad. 3. MEJORAR LA EFICIENCIA EN LA GESTIÓN ADMINISTRATIVA, ADECUANDO LA ORGANIZACIÓN, IMPLANTANDO NUEVOS MODELOS DE GESTIÓN Y REALIZANDO UN USO INTELIGENTE DE LA TECNOLOGÍA. Adecuación organizativa: - Número de puestos tipo revisados para la adecuación a las nuevas necesidades. - Creación del soporte organizativo de la Admón. Electrónica. - Número de personas formadas en gestión electrónica de expedientes. Mejora de la gestión: - Impartir la formación-acción "Egiten Ikasi" de acuerdo con el calendario establecido. - Elaborar diagnósticos y planes de mejora de cada unidad organizativa en relación con el Modelo de Gestión Avanzada. Gestión electrónica interna: - Nueva intranet implantada. - Porcentaje de procedimientos digitalizados. Evaluación de las políticas públicas: - Desarrollar un portal para la publicación de evaluaciones. - Ejecutar una buena práctica de evaluación de políticas públicas ejemplificadora y con fuerte impacto en la cultura organizativa. 4. PROMOVER LA INNOVACIÓN EN LA ADMINISTRACIÓN INVOLUCRANDO A LA CIUDADANÍA Y A LOS PROFESIONALES EN EL DISEÑO, LA GESTIÓN Y LA EVALUACIÓN DE LAS POLÍTICAS Y DE LOS SERVICIOS PÚBLICOS. Innovación desde los profesionales:



HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
- Lankidetzaren sareetan, praktika-komunitateetan eta berrikuntza-lantaldeetan parte hartzen duen pertsona-kopurua. Herritarrekin berritzea: - Herritarrekin batera, proiektu pilotuak garatzea, BPPko ardatz estrategiko bakoitzean.	1.200 5	- Número de personas involucradas en redes de colaboración, comunidades de práctica y equipos de innovación. Innovación con la ciudadanía: - Desarrollar proyectos piloto de innovación con la ciudadanía en cada eje estratégico del PIP.